

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBAO-BIZKAIA MUSEOAK, SL-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA. 2016

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den maiatzaren 24an Bilbao-Bizkaia Museoak, SLren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari buruzkoa.

2016ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du.

Eta gaineratu du Sozietateak zuzentasunez **bete duela** 2016ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautu duen **lege arautegia**, nahiz kontratu bat zegokion aldaketa gauzatu gabe luzatu zen.

Bestetik, HKEEk ezin egiaztatu izan du lanpostu bat betetzeko bideratutako hautaketa prozesua, langileak hautatzeko enpresa baten bitartez gauzatu zena.